

EUSKADIKO GAZTEAK LAN-MERKATUAN Lan Merkatuaren Erroldaren analisia 2019



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA **Observatorio** VASCO
DE LA JUVENTUD

EUSKADIKO GAZTEAK LAN-MERKATUAN.

2019ko Lan Merkatuaren Erroldaren
analisia



Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa taldea:

Miren Bilbao, Oskar Longo, Itziar Urresti eta Nieves Corcuera

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena - Ez-komertziala - Lan eratorririk gabea 4.0
Unported de Creative Commons (informazio gehiago
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA.....	4
METODOLOGIA.....	5
1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA, LANARI DAGOKIONEZ	6
2. GAZTEEN ENPLEGUEN EZAUGARRIAK	9
2.1. Pertsona landunen lanbide-egoera eta -kategoria	9
2.2. Langileek lan egiten duten enpresaren edo erakundearen jarduera-sektorea	12
2.3. Langileen kontratu mota eta enplegu horretan duten antzintasuna.....	14
2.4. Langileen lanaldi mota eta asteko lanorduak	16
2.6. Lan egiten dutenen diru-sarrerak	22
2.7. Lan egiten dutenek beste lan bat bilatzea.....	23
3. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEN EGOERA	24
3.1. Aurretiko lan-esperientzia izatea eta prestazio ekonomikoren bat jasotzea	25
3.2. Lana bilatzeko bideak	26
3.3. Lana bilatzen emandako denbora	28
3.4. Lana bilatzen den eremua eta lanagatik bizilekua aldatzeko prestasuna	29
3.5. Nahiago den lanaldi mota eta lanaldi partzialeko lanak hartzeko prestasuna	30
3.6. Kategoria jaitea edo diru-sarrerak murriztea dakartzaten lanak onartzeko prestasuna	33
3.7. Lana aurkitzeko oztopoak	34
4. EMAITZA NABARMENENAK	36

SARRERA

Gazteen Euskal Behatokiak, gazteriak hainbat eremutan bizi duen egoeraren ikuspegi eguneratua izateko, Euskadiko gazteek enpleguari dagokionez duten egoera aztertu du berriro ere.

Enplegu bat izatea diru-sarrera propioak izateko oinarria da, eta, ondorioz ahalbidetzen du (edo ez, inguruabarren arabera), emantzipazioa, hala edo nola, etxebizitza eskuratzea, eta bizi-proiektu pertsonalak garatzea.

Ikerketa hau 2019ko Lan Merkatuaren Erroldaren Inkestan (eskaintzari dagokionean, hain zuzen ere) jasotako datuetan oinarritzen da. Inkesta hori Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak egin du (gaur egun berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita), eta Gazteen Euskal Behatokiari eman dizkio gazteei dagozkien eta beraien egoeran eragin berezia duten zenbait datu.

Bertan, datu orokorrak aztertzen dira, hala nola, lanean edo langabezian dauden gazteen kopurua, baina baita enpleguari buruzko gai zehatzak ere (kontratu edo lanaldi mota, diru-sarrerak, Gizarte Segurantzako kotizazioa eta abar), edo langabeen artean enplegua bilatzeari buruzko gaiak (lan bila emandako denbora, lana bilatzeko bideak, etab.).

Txosten honek 16-29 urteko gazteen egoera du ardatz, baina lan egiteko adinean (16-64 urte) dagoen biztanleria osoaren datuak izateak aukera ematen digu 30 urtetik beherako pertsonen egoera beste adin-talde batzuekin alderatzeko, eta horrela aurreikusteko datuek zer bilakaera izan dezaketen adinak eta lan-esperientziak gora egin ahala.

Nolanahi ere, adierazi behar da inkesta hau Covid-19k sortutako pandemiaren aurrekoa dela, beraz, ez dituela neurtzen lan-merkatuan pandemiak izandako ondorioak, enpresen itxierari, enplegu-suntsiketari eta/edo lan-baldintzen aldaketari dagokienez.

METODOLOGIA

Lan Merkatuaren Errolda, Enplegu eta Gizarte politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak aldizka egin duen inkesta da. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren biztanleen lan-indarraren eskaintza ezagutzea.

Inkesta familia-etxebizitzetara zuzenduta dago. Etxebizitzak hautatzeko, Eustaten, Euskal Estatistika Erakundearen, Etxebizitzaren Direktorioa hartu da oinarri gisa. Laginaren diseinua probabilitistikoa da eta hainbat aldagai soziodemografikoren eta enplegu-eskualde edo -aroen arabera estratifikatua. Huts egindako etxebizitzak ordeztu egiten dira, eta, beraz, titular bakoitzeko bi ordeztu hautatu dira lagina osatzeko.

Ondoren, etxeetan 16 urtetik gorako kide guztiei buruz galdetzen da. Hautatutako pertsonak aurrez aurre elkarrizketatu dira, baina zenbait egoeratan, batez ere familiak edo pertsonak berak hala nahi izan badu, elkarrizketak telefonoz egin dira.

2019ko edizioan, inkesta-aldiak urria eta abendua bitartean iraun zuen, eta landa-lana Ikertaldeak egin zuen.

Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Estatistika Organo Espezifikoak hainbat datu-taula eman dizkio Gazteen Euskal Behatokiari, hiru adin-taldetan banatutako informazioarekin: 16-29 urte, 30-34 urte eta 35-64 urte. Gainera, datuek aukera ematen dute 16-29 urteko gazteen kolektiboa sexuaren eta adinaren arabera (25 urtetik gorakoak eta behekoak) bereizteko, beste aldagai batzuen artean.

Gazteen Euskal Behatokiak datu horiek aztertu ditu eta txosten hau idatzi du.


1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA, LANARI DAGOKIONEZ

Inkesta egin duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 38,4k adierazi dute aurreko astean lanpostu bat izan zutela.

Gainerako % 61,6k ez du lanik egiten, baina talde horretan, alde batetik, langabezia dauden pertsonak daude, hau da, lanik egin ez arren lan bila dabiltzanak eta, izatez, aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin zutenak (gazte guztien % 9,5), eta, bestetik, lan egiten ez duten gainerakoak, batez ere, ikasleak (% 52,1).

1.1.grafikoa


16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen banaketa, lanari dagokionez, 2019an izandako egoeraren arabera (%)



Lana duten gazteen ehunekoa (gazte guztien arabera kalkulatuta), nabarmen txikiagoa da adin handieneko taldeetan baino.


Kalkulua 16 eta 24 urte bitartekoentzat eta 25 eta 29 urte bitartekoentzat egiten badugu, ikusten dugu lana dutenen ehunekoa nabarmen egiten duela gora 24 urtetik aurrera, gutxi gorabehera bat etorritik goi-mailako ikasketak amaitzearekin eta, beraz, gazte gehienak lan-merkatuan sartzearekin. Hau da, 25 urtetik beherakoan artean gehienak ikasten ari dira, eta 25 eta 29 urte bitartekoan artean, berriz, gehienak lanean ari dira

1.2.grafikoa
Lana duten pertsonen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)



Bestalde, lana duten emakume eta gizon gazteen ehunekoak antzekoak dira eta gauza bera gertatzen da 30-34 urtekoen artean, hau da, lanean dabiltzan emakumeen eta gizonen ehunekoak antzekoak direla. Baina 35 eta 64 urte bitartekoan artean, aldiz, lan egiten duten gizonen ehunekoa lanean diharduten emakumeena baino hamar puntu handiagoa da.


1.3.grafikoa
Lana duten pertsonen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldean arabera (%)



Lana duten 30 urtetik beherako gazteen ehunekoei erreparatuta, ikusten da zertxobait handiagoa dela Gipuzkoan (% 42,5) Araban (% 37,4) edo Bizkaian (% 36,0) baino. Gainerako adin-taldeetan, lurraldeen arteko aldeak txikiagoak dira.

1.4.grafikoa

Lana duten pertsonen ehunekoa, lurralde historikoen eta adin-taldeen arabera (%)




2. GAZTEEN ENPLEGUEN EZAUGARRIAK

Atal honetan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enpleguak nolakoak diren deskribatuko dugu, eta, aldi berean, Euskadiko gainerako biztanle landunen enpleguekin alderatuko ditugu.

Lehenik eta behin, argitu behar da gazte gehienek enplegu bakarra dutela; gazte landunen % 1,1ek baino ez du enplegu bat baino gehiago. Gazte enpleguaniztunen ehunekoa ez da % 2ra iristen sexuaren, adinaren edo lurralde historikoaren arabera kolektibo batean ere ez.

2.1.grafikoa

Enplegu bat baino gehiago duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunak, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Adin handieneko biztanleria landunaren artean ere ez da % 2ra iristen; 30-34 urtekoen taldean % 1,9koa da, eta 35-64 urtekoen taldean % 1,5koa.

Beraz, jarraian deskribatzen diren ezaugarri guztiak enplegu bakar horri (edo enplegu nagusiari, enplegu-aniztasunaren kasuan) dagozkio.

2.1. Pertsona landunen lanbide-egoera eta -kategoria


30 urtetik beherako gazte landun gehien-gehienak soldatapekoak dira (% 93,5), eta % 4,6 norberaren kontura lan egiten dute; gainerako % 1,4 kooperatibistak dira eta % 0,4k ordainsaririk gabe familia-negozioan laguntzen dute (familia-laguntza esaten zaio horri).

Soldatapeko gehiengo hori kontuan hartuta, esan dezakegu gehienek enpresa pribatuetan lan egiten dutela (% 83,0), baina hamar gazte landunetik batek administrazio publikoren batean edo enpresa publikoren batean lan egiten duela (% 10,6).

Beste adin-talde batzuekiko alderaketak erakusten digu adinak gora egin ahala, gora egiten duela administrazio publikoan edo enpresa publikoetan lan egiten duten soldatapeko langileen ehunekoak, bai eta norberaren kontura edo kooperatibista gisa lan egiten dutenen ehunekoak ere. Beraz, esan dezakegu, adinak gora egin ahala, sektore pribatuko soldatapeko batzuk sektore publikora edo soldatapekoak ez diren taldeetara aldatzen direla. Familia-laguntza egiten dutenen ehunekoa ez da % 0,5era iristen adin-talde bakar batean ere.

2.2.grafikoa

Lan egiten duten biztanleen lanbide-egoera, adin-taldean arabera (%)



Aztertutako talde guztietan, enpresa pribatu bateko soldatapekoa izatea da lanbide-egoera nagusia, baina badaude aldeak sexuaren, adinaren edo lurralde historikoaren arabera:

- Emakumeek gizon gazteek baino neurri handiagoan egiten dute lan administrazio publikoan edo enpresa publikoetan, baina gizonak baino gutxiago beren kontura.
- 16 eta 24 urte bitarteko pertsonak dute enpresa pribatuetan soldatapeko gisa lan egiten dutenen ehunerik handiena, eta, aldiz, norberaren kontura lan egiten dutenen kopururik txikiena.
- Lurralde historikoen arabera, norberaren konturako lanaren edo familia-laguntzaren zifra handienak Araban daude; Bizkaian daude sektore publikoan lan egiten dutenen ehuneko handienak, eta Gipuzkoan dago kooperatibista gazteen ehuneko handiena.

2.1. taula

Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lanbide-egoera, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)


(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Soldatapekoak, enpresa pribatuetan lan egiten	83,0	81,5	84,4	88,3	80,1	81,4	82,4	84,3
Soldatapekoak, administrazioan edo enpresa publikoetan lanean	10,6	13,9	7,3	8,1	11,9	8,3	12,7	8,7
Kooperatibistak	1,4	0,7	2,1	1,5	1,4	1,8	0,0	3,2
Norberaren kontura lan egiten	4,6	3,2	6,0	2,0	6,0	6,8	4,5	3,7
Familia-laguntza	0,4	0,6	0,2	0,2	0,5	1,6	0,4	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien artean % 2,5 soilik dago zuzendaritza-kargu batean bere enpresan. Gizon gazteek emakume gazteek baino zuzendaritza-kargu gehiago betetzen dituzte (% 3,5ek eta % 1,5ek, hurrenez hurren).

Beste adin-taldeekin konparatuz gero, ikusten da zuzendaritza-kargua betetzen dutenen gazteen ehunekoa eta 30 eta 34 urte bitartekoaren artean jasotakoa oso antzekoak direla (% 2,5 eta % 2,4, hurrenez hurren), baina 35 eta 64 urte bitartekoaren artean handiagoa dela (% 8,1).

2.3. grafikoa


Zuzendaritza-karguak betetzen dituzten langileak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Bestalde, soldatapeko gazteei bakarrik erreparatuz gero, ikusten dugu % 98,2 Gizarte Segurantzaren kotizatzen ari direla.

2.4.grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen banaketa, Gizarte Segurantzaren kotizatzearen arabera (%)



Ez da alde esanguratsurik ikusten sexuaren edo adinaren arabera, baina egia da 25 urtetik beherako soldatapekoen artean Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenen ehunekoa (% 96,1) 25 eta 29 urte bitartekoaren artean jasotakoa (% 99,4) baino txikixeagoa dela.

30 urtetik gorakoaren artean, Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenen ehunekoak % 99tik gorakoak dira.


2.2. Langileek lan egiten duten enpresaren edo erakundearen jarduera-sektorea

Lan egiten duten lau gaztetik hiruk zerbitzuen sektorean lan egiten dute (% 74,7). Ez dago alde handirik beste adin-taldeekiko, langile gehienek sektore horretan lan egiten baitute, baina, hala ere, gazteek dute ehunekorik handiena.

Aitzitik, 16 eta 29 urte bitartekoak dira industria-sektorean lan egiten dutenen ehunekorik txikiena jasotzen dutenak (% 20,6).

Eraikuntzan (4,1 %) edo nekazaritza edo arrantzan (0,6 %) lan egiten duten gazteen ehunekoak txikiagoak dira, baina biztanleria orokorraren antzekoak.

2.5. grafikoa
Langileek lan egiten duten jarduera-sektoreak, adin-taldearen arabera (%)



Kasu honetan, emakume eta gizon gazteen arteko aldeak nabarmenak dira, zerbitzu-sektorean lan egiten duten emakumeen portzentajea gizonena baino askoz handiagoa baita (emakumeen % 89,2k eta gizonen % 53,5ek), baina, aitzitik, emakumeek industrian, eraikuntzan edo nekazaritzan eta arrantzan duten pisua gizonena baino askoz txikiagoa da (aipatzekoa da 30 urtetik beherako gizonen % 40,1ek industrian lan egiten dutela).

Bizilekuak ere aldeak erakusten ditu. Bizkaian zerbitzua-sektorean gazteek duten pisua batezbestekoa baino handiagoa da; bestetik, Gipuzkoan aurki ditzakegu industrian lan egiten duten gazte gehien¹. Araban, zifra txikiak badira ere, beste lurraldeetan baino gazte gehiagok lan egiten dute nekazaritzan.

Azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoek 16 eta 24 urtekoek baino neurri handiagoan lan egiten dute industrian eta gutxiago zerbitzuen sektorean.

2.2. taula
Langile gazteek lan egiten duten enpresen edo erakundearen jardueraren sektorea, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

Guztira (%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Nekazaritza eta arrantza	0,6	0,2	0,9	0,9	0,5	2,5	0,3	0,3
Industria	20,6	10,1	40,1	14,2	24,1	21,9	15,1	27,2
Eraikuntza	4,1	0,4	5,5	3,9	4,2	3,9	3,9	4,4
Zerbitzuak	74,7	89,2	53,5	81,0	71,3	71,8	80,7	68,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100


¹ Agian, industrian dagoen lan proportzio handiago horrek azal dezake Gipuzkoan lanean daudenen ehunekoak altuagoak izatea.

2.3. Langileen kontratu mota eta enplegu horretan duten antzintasuna

Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek kontratua dute, % 1,7k soilik diote kontratu barik lan egiten dutela, baina ehuneko hori bikoiztu egiten da 16 eta 24 urte bitartekoen artean (% 3,6). Bestetik, kontratua dutenen artean, gehiago dira aldi baterakoa dutenak (% 53,8) mugagabea dutenak baino (% 44,5).

2.6. grafikoa


Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, 2019an izandako kontratu motaren arabera (%)



Kontratu mugagabea dutenen pisua handitzen doa adinean gora egin ahala eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean gehienek dute horrelako kontratu mota.

2.7. grafikoa

Langileen kontratu mota, adin-taldearen arabera (%)



30 urtetik beherako Bizkaiko langileek jasaten dute ezegonkortasunik handiena lanean: % 56,8k aldi baterako kontratua dute eta % 2,2k ez dute kontraturik ere.

Gizon eta emakume gazteen artean, aldiz, ez da alde esanguratsurik hautematen.

2.3. taula

16 eta 29 urte bitarteko langile gazteen kontratu mota, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)


(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Aldi baterakoa	53,8	52,2	55,5	66,5	46,6	52,8	56,8	50,3
Mugagabea	44,5	45,8	43,2	29,9	52,8	47,2	41,0	48,2
Kontratu barik	1,7	2,0	1,3	3,6	0,6	0,0	2,2	1,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Aldi baterako kontratuen hedapenak badu zerikusia enpleguan duten antzintasunarekin. 30 urtetik beherako hamar langiletik zazpik bi urte baino gutxiago daramate beren enpleguan (% 71,7) eta beste % 22,9k bi eta lau urte artean daramatzate. % 5,5ek, soilik, daramatzate bost urte edo gehiago egungo enpleguan.

Adin nagusiagoko taldeetan, zeinetan gehienek kontratu mugagabeak baitituzte, antzintasuna askoz handiagoa da. 30 eta 34 urte bitartekoen artean % 35,4k bost urte edo gehiago daramatzate egungo enpleguan eta 35 eta 64 urte bitarteko langileen artean gehienek bost urte edo gehiago daramatzate beren enpleguetan (% 70,7).

2.8. grafikoa

Langileek enpleguan duten antzintasuna, adin-taldeen arabera (%)



Espero bezala, egungo enpleguan duten antzintasuna handiagoa da 25 eta 29 urte bitarteko langileen artean, 25 urtetik beherakoen artean baino.

Gainera, Arabako gazteek batez bestekotik gorako antzintasuna dute eta bizkaitarrek, aldiz, bi urte baino gutxiago daramatenen ehunekorik altuena dute (gogoratu behar da Bizkaian langile gazteek dutela aldi baterako kontratuen proportziorik handiena).

Azkenik, ez da alde handirik ikusten lan egiten duten gizon eta emakume gazteen artean, baina gizonen antzintasuna handixeagoa da.

2.4. taula

16 eta 29 urte bitarteko langileek egungo enpleguan duten antzintasuna, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2 urte baino gutxiago	71,7	73,3	70,0	86,4	63,7	61,7	76,9	68,6
2 eta 4 urte artean	22,9	20,8	24,8	12,0	28,8	25,3	20,1	25,5
5 urte edo gehiago	5,5	5,8	5,1	1,7	7,6	13,0	3,0	5,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

2.4. Langileen lanaldi mota eta asteko lanorduak


Soldatapeko langile gazte gehienek lanaldi osoan dihardute, baina 16 eta 29 urte bitarteko hiru soldatapeko langile batek lanaldi partziala du (% 31,2).

Adinean behera eginez gero, ikusten dugu 16 eta 24 urte bitarteko soldatapeko langileen kasuan % 45,5ek, hau da, ia erdiek, lanaldi partziala dutela.

Badaude alde nabarmenak gizon eta emakume gazteen artean, lanaldi partziala duten soldatapeko emakumeen portzentajeak bikoiztu egiten baitu egoera berean dauden gizonena (30 urtetik beherako soldatapeko emakumeen % 41,3 eta adin bereko soldatapeko gizonen % 21,0).

2.9. grafikoa


Lanaldi partziala duten 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko langileak, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Lanaldi partziala izatea ohikoagoa da 30 urtetik beherakoen artean, adin nagusiagoko soldatapeko langileen artean baino.

2.10. grafikoa

Soldatapeko langileen lanaldi mota, adin-taldearen arabera (%)



Aurreko datuak orokorrak dira, adin-talde bakoitzeko gizon eta emakumeei erreparaturaz gero, ikusten dugu 30 urtetik gorako emakumeek 16 eta 29 urte bitarteko gizonen baino lanaldi partzial gehiago dituztela. Gainera, gizonen kasuan lanaldi partziala dutenen ehunekoak behera egiten du adinean gora egin ahala, baina emakumeen artean jaitsi egiten da 30 urtetik gorakoaren artean baina oso antzekoa da 30 eta 34 urte bitartekoaren artean eta 35 eta 64 urtekoaren artean.

2.5. taula

Lanaldi partzaila duten langileak, sexua eta adin-taldeak gurutzatzearen arabera (%)


(%)	16-29 urte	30-34 urte	35-64 urte
Emakumeak	41,3	26,0	26,5
Gizonak	21,0	9,2	3,7

Langile guztiek, eta ez bakarrik soldatapekoek, astean egindako lanorduei erreparatuz gero, ikusten dugu soldatapeko, zein kooperatibista edo norberaren konturako 16 eta 29 urte bitarteko lau langiletik batek gehienez 30 ordu lan egiten dituela astean (% 25,8). Beste % 13,2k 30-39 lanordu izaten ditu astean. Eta gehienek, % 59,9k, 40 lanorduko astea dute. % 1,1ek, soilik, betetzen ditu 40 lanordu baino gehiago astean.

Adinean gora egin ahala, jaisten da 30 lanordu baino gutxiago egiten dituztenen ehunekoa eta, aitzitik, handitzen da 40 ordu edo gehiago lan egiten dituztenena. Hori logikoa da, kontuan hartuta zenbat eta adin nagusiagoa izan orduan eta handiagoa dela norberaren kontura lan egiten dutenen portzentajea eta talde horretan batez bestekoaren gainetik daudela astean egindako lanorduak.

2.11.grafikoa

Langileek astean egiten dituzten lanorduak, adin-taldearen arabera (%)



16 eta 24 urte bitarteko langileen artean % 39,7k 30 ordu baino gutxiago egiten dute lan astean, 25 eta 29 urte bitartekoen artean ehunekoa % 18,3ra murrizten da eta, aitzitik, gehienek 40 ordu edo gehiago lan egiten dute (% 67,3).

Emakume langile gazteen artean, % 34,1ek astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dute eta beste % 18,2k 30 eta 39 lanordu artean. Hau da, emakumeen % 52,3k astean 40 ordu baino

gutxiago lan egiten dute eta erdiek baino gutxiagok egiten dute 40 orduko lanaldi estandarra (% 47,0). Gizonezko langile gazteen artean, aldiz, gehienek 40 orduko lanaldia egiten dute (% 72,5).

2.6. taula


16 eta 29 urte bitarteko langileek astean egindako lanorduak, sexuaren eta adinaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina	
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte
30 ordu baino gutxiago	25,8	34,1	17,7	39,7	18,3
30 eta 39 ordu artean	13,2	18,2	8,3	11,0	14,4
40 ordu	59,9	47,0	72,5	48,3	66,2
40 ordu baino gehiago	1,1	0,7	1,5	1,1	1,1
Guztira	100	100	100	100	100

Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko langile gehienek azaldu dute lanaldi murriztu hori enpresak ezarritakoa dela (% 86,2); gutxi dira, aldiz, beren borondatez aukeratua dela diotenak (% 13,8).

2.12.grafikoa

Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko langileen lanaldi murriztua borondatezkoa izatea (%)



Adinean gora egin ahala gehiago dira beren borondatez astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dutenak (hala ere gutxiengoa dira adin-talde guztietan): lanaldi partziala duten 30 eta 34 urte bitarteko langileen % 18,0 eta astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 35 eta 64 urte bitarteko langileen % 25,9.

Emakume gazteen artean beren borondatez lanaldi murriztua dutenen portzentajea gizon gazteen artean jasotakoa baino handixeagoa da (lanaldi murriztua dutenen % 15,4 eta % 10,7, hurrenez hurren). Borondatezko lanaldi murriztuei dagokienez, gizon eta emakumeen arteko aldeak handitzen dira adinean gora egin ahala.

2.7. taula


Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten langileen lanaldi murriztua borondatezkoa izatea. Gizon eta emakumeen arteko aldeak, adin-taldean arabera (%)

(%)	16-29 urte		30-34 urte		35-64 urte	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Borondatez aukeratua	15,4	10,7	19,5	13,4	27,2	16,7
Enpresak ezarritakoa	84,6	89,3	80,5	86,6	72,8	83,3
Guztira	100	100	100	100	100	100

Borondatez lanaldi murriztua izatearen arrazoiei dagokienez, ikus daiteke 30 urtetik beherako langileek batez ere diotela horrela bateratu egin ditzaketela lana eta ikasketak (% 77,9). Gutxi dira adin tarte horretan beste eratako arrazoiak azaltzen dituztenak. Aitzitik, 30 eta 34 urte bitartekoen artean, bai eta 34 urtetik gorakoaren artean ere, lanaldi murriztua izatearen arrazoirik aipatuena seme-alaben edo beste mendekoen zaintza izaten da (30 eta 34 urte bitartekoen % 73,0k esan du hori, bai eta 34 urtetik gorako % 77,5ek ere).

2.13.grafikoa

Borondatez astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dutenek lanaldi murriztua izateko aipatu dituzten arrazoiak, adin-taldean arabera (%)



Borondatez astean 30 ordu baino gutxiago lan egiteko gizon eta emakumeek emandako arrazoiei erreparatuz gero, ikus dezakegu lanaldi murriztua duten gizon gazte guztiek lana eta ikasketak uztartzeko dela diotela (lanaldi murriztua duten gizonen % 100). Emakume gazteen artean, gehienek arrazoi bera eman dute, hau da, % 69,8k lana eta ikasketak uztartzeko dela diote, baina laurden batek (% 26,6) seme-alabak zaintzeko edo mendeko beste pertsonak zaintzeko aukeratu duela azaldu du.

2.5. Lanean ari direnen lana ikasketekin lotuta izatea


Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek unibertsitateko ikasketak edo Lanbide Heziketako (LH) ikasketak dituzte (% 82,6).

Pertsona gazte horien artean, lautik hiruk adierazi dute lanean beraien ikasketetan ikasitakoa erabiltzen dutela (% 73,1).

Goi-mailako edo Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langileak kontuan hartuta, ikusten dugu ikasketekin lotutako lana dutenen ehunekoak handiagoak direla 16 eta 29 urte bitartekoen artean (% 73,1), 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 71,7) edo 35 eta 64 urte bitartekoen artean (% 69,2) baino.

2.14. grafikoa

Goi-mailako edo Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langileen artean, bere prestakuntza lanean erabiltzen dutenen ehunekoa, adin-taldeen arabera (%)



Goi-mailako edo LHko ikasketak dituzten 16 eta 29 urte bitarteko langileen artean, ez da sexuaren araberako alderik ikusten, lanean ikasketetan ikasitakoa erabiltzen ote duten aztertzen denean. Ehunekoak hauexek dira: gizon gazteen % 73,8 eta emakume gazteen % 72,5.

Lurralde historikoen araberako aldeak handiagoak dira baina, hala ere, ez dira nabarmenak: Araban LHko edo unibertsitateko ikasketan dituzten 30 urtetik beherako langileen % 69,9k erabiltzen dute beren prestakuntza lanean, Bizkaiko gazteen kasuan % 72,5ek eta Gipuzkoako gazteen kasuan % 75,0k.

2.6. Lan egiten dutenen diru-sarrerak


Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko langileek aurreko hilean jasotako diru-sarrera garbiak 1267 eurokoak izan dira, batez beste².

Batez besteko diru-sarrera horiek adin nagusiagoko adin-taldeenak baino txikiagoak dira; batez besteko diru-sarrerak adinarekin batera handitzen baitira. Gazteen adin-taldeak kontuan hartuz gero, ikus dezakegu 25 eta 29 urte bitarteko langileek aurreko hilean, batez beste, 1.340 euro garbiak jaso zituztela eta 16 eta 24 urte bitartekoen soldata garbia, aldiz, txikiagoa izan zen: 1.133 euro garbiak, batez beste.

Emakume gazteek gizon gazteek baino diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte (emakumeek 1.234 euro, batez beste, eta gizonak 1.300 euro). Gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldeak adin-talde guztietan gertatu ez ezik, arrakala handitzen da adinean gora egin ahala.

2.15. grafikoa

Lan egiten dutenen hileko diru-sarrera garbiak, sexuaren eta adin-taldeen arabera (euro)



Gipuzkoako gazteak dira batez besteko soldatarik handienak dituztenak (aurreko hilean 1.290 euro kobratu dituztela diote). Arabakoek, aldiz, soldatarik baxuenak kobratzen dituzte (1.194 euro, batez beste). Bizkaian 16 eta 29 urte bitarteko gazteek adierazi dute aurreko hilean 1.272 euro garbiak jaso dituztela, batez beste.


² Hileko diru-sarrerak dira, aparteko ordainsariak hainbanatu barik.

2.7. Lan egiten dutenek beste lan bat bilatzea

Lan egiten duten gazteen % 8,1 beste lan bat bilatzen ari da, batez ere, bi arrazoi hauengatik: ez dakitelako egungo lana mantendu ahal izango duten edo beren prestakuntzarekin lotura handiagoa duen lan bat aurkitzeko.

Lan egiten duten 30 urtetik beherako gizonen artean, beste lan bila ari direnen ehunekoa emakume gazte langileen artean lan bila dabiltzanena baino handixeagoa da (% 9,0 eta % 7,2, hurrenez hurren).

2.16. grafikoa
Beste lan bat bilatzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko langileak (%)



Zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta txikiagoa da beste lan bat bilatzen ari diren langileen ehunekoa: 30 eta 34 urte bitartekoen % 5,6 eta 35 eta 64 urte bitartekoen % 2,7.


3. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEN EGOERA

Lehenengo atalean ikusi dugunez, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,5 langabezian dago.

Langabezian dauden pertsonen proportzioak behera egiten du adinean gora egin ahala: horrela, 30 eta 34 urte bitartekoen artean, % 7,8 dago langabezian, eta 35 eta 64 urte bitartekoen artean, % 6,5.

Sexuaren arabera aldeei erreparatuz gero, ikusten dugu gizon gazteen artean langabezian dauden ehunekoa emakume gazteen artean jasotakoa baino handixeagoa dela (% 11,5 eta % 7,5, hurrenez hurren). Oro har, 35 urtetik beherakoan artean, langabezian dauden gizonen ehunekoa emakumeena baino handixeagoa da; 35 eta 64 urte bitartekoen artean, aldiz, gehixeago dira emakume langabeak gizon langabeak baino.

3.1.grafikoa
Langabezian dagoen biztanleria, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Bestalde, gazte langabeen ehunekorik handiena Araban jaso da; bertan 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren % 12,5 langabezian baitago. Aitzitik, Gipuzkoan jaso da gazte langabeen ehunekorik txikiena (% 7,3)³. Bizkaia tarteko posizioan dago (gazten % 10,2 langabezian dago).

Azpimarratu behar da ez gaudela langabezia-tasaz hitz egiten, horiek biztanleria aktiboaren gainean kalkulatzeko baitira. Hemen jaso dena hau da: adin tarte bakoitzeko taldean langabezian dauden ehunekoak.

³ Gogoratu behar da, Gipuzkoan jaso direla lan egiten duten gazteen ehunekorik handiena (ikus 1. atala).


3.1. Aurretiko lan-esperientzia izatea eta prestazio ekonomikoren bat jasotzea

Langabezian dauden 30 urtetik beherako gazteen % 77,9k aurretik lan egin izan dute, baina gutxi dira (% 16,4) langabezia-prestazioa edo beste gizarte-laguntzaren bat, hala nola Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), jasotzen ari direnak.

Adin nagusiagoko langabeen kasuan, % 97 inguruk aurretik lan egin izan du eta prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenen ehunekoak askoz altuagoak dira: 30 eta 34 urte bitarteko langabeen % 58,7 eta 35 eta 64 urte bitarteko langabeen % 49,2, hau da, talde bakoitzean, erdia inguru ari da diru-laguntzaren bat jasotzen.

3.2. grafikoa

Aurretiko lan-esperientzia duten langabeak eta prestazio ekonomikoren bat jasotzen duten langabeen kopuruarekiko konparazioa, adin-taldean arabera (%)



30 urtetik beherako langabeen taldean emakumeek gizonek baino aurretiko lan-esperientzia gehiago dute (langabezian dauden emakumeen % 82,2 eta langabezian dauden gizonen % 75,2), baina diru-laguntzak jasotzeari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko aldea oso txikia da: langabezian dauden emakume gazteen % 17,8k jasotzen du prestazio ekonomikoren bat, eta langabezian dauden gizon gazteen kasuan, % 15,5ek.

3.2. Lana bilatzeko bideak

Langabezian dauden 30 urtetik beherako gazteen % 99,9 lana bilatzen ari da eta horretarako gestioaren bat egin dute galdetu aurreko lau astetan.

Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lana bilatzeko gehien erabiltzen dituzten metodoak hauexek dira: familiakoei eta lagunei galdetzea (% 88,9), enpleguko web-atariak erabiltzea (% 81,4), enpresaburuekin kontaktatzea (% 80,9) eta enpleguko bulego publikoetara joatea (% 76,3). Gainera, % 59,7k sare sozialen bidez bilatzen du, % 48,5ek enpleguko bulego pribatuen bidez edo Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) bidez eta % 27,6k izena eman du laneko poltsetan. Dezente gutxiago dira komunikabideen edo taula publikoen lan-eskaintzak iragartzen dituztenak edo haiei erantzuten dietenak.

3.3. grafikoa

Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lana bilatzeko erabiltzen dituzten bide nagusiak (%)



Guztira, 16 eta 29 urte bitarteko langabeen % 84,0k izena emanda dauka lana bilatzeko zerbitzu edo bulegoren batean, publiko zein pribatu. 35 eta 64 urte bitarteko langabeen artean, izena emanda dutenak % 91,3 dira eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean, % 92,6.

Langabezian dauden emakume eta gizon gazteek lana bilatzeko erabiltzen dituzten bideetan arreta jarritz gero, ikusten dugu ohikoenen hurrenkera berdina dela gizonen eta emakumeen artean: gehien erabiltzen dena beti da familiakoei eta lagunei galdetzea; bigarren tokian, enpleguko web-atarien erabilera dago; hirugarrenean, enpresaburuekin kontaktatzea; laugarrenean, enpleguko bulego publikoetan izena ematea; eta, bosgarrenean, sare sozialak erabiltzea. Emakume eta gizon gazteen arteko alderik handiena hurrenkera horren seigarren tokian aurkitzen dugu: emakumeen kasuan enpleguko lan-poltsetan izena ematea dago seigarren postu horretan eta gizonen kasuan, aldiz, enpleguko bulego pribatuetan edo Aldi Baterako Enpleguko Enpresetan (ABLEtan) izena ematea. Desberdintasun horren arrazoia batzuek eta besteek lan egiten duten sektoreetan aurki genezake (emakumeek gizonen baino neurri handiagoan lan egiten dute zerbitzu sektorean edo administrazioan edo enpresa publikoetan, eta gizonen emakumeek baino enplegu-tasa handiagoak izaten dituzte industrian eta eraikuntzan⁴).

Bestalde, lana bilatzeko orduan 30 urtetik beherako langabeen eta 30 urtetik gorakoen arteko alderik handiena honetan datza: gazteek gehiago jotzen dute sare sozialetara eta, aldiz, gutxiago enpleguko bulego publiko zein pribatuetara.

3.1. taula

Langabeek lana bilatzeko erabiltzen dituzten bide nagusiak, adin-taldeen arabera (%)

(aukera bakoitzari dagokion baieztoko erantzunen %)	16-29 urte	30-34 urte	35-64 urte
Senideekin, lagunekin eta abarrekin hitz egin du	88,9	89,4	82,3
Enplegu-atari orokorrak edo arloetan espezializatutakoak erabiltzen ditu (Infojobs, Infoempleo...)	81,4	86,7	77,2
Enpresariekin harremanetan jarri da	80,9	83,4	78,9
SEPEn/LANBIDEren bulegoetara edo beste enplegu-bulego publikoetara joan da (udal zerbitzuetara...)	76,3	86,7	84,9
Sare sozialak erabili ditu (LinkedIn, Facebook, Twitter...)	59,7	43,7	49,2
Enplegu-bulego pribatu batekin edo ABLE batekin harremanetan jarri edo bertan izena eman du	48,5	76,7	58,6
Erakunde publiko edo enpresa pribatu bateko lan-poltsan izena eman du	27,6	25,0	29,3
Prentsako, irratiko edo TBko iragarkiei erantzun die edo bertan iragarkia jarri du	15,4	22,3	14,4
Kontratatzeko azterketa edo elkarrizketa egin du	14,4	28,8	9,8
Enplegu-bulego publiko edo pribatu bateko deia zain dago	11,4	11,0	8,4
Prentsako, irratiko edo TBko enplegu-eskaintzak irakurri eta entzun ditu	9,6	18,6	11,1
Egindako eskarien edo egindako oposizioen erantzunaren zain dago	6,8	2,0	5,6
Iragarkia jarri du tauletan, merkataritza-zentroetan...	2,9	1,7	3,4
Beraren kontura jartzeko lurzoruak, lokalak, makinak, finantziarioa eta abar bilatu ditu	0,7	1,2	3,0


⁴ Ikus 2.1 eta 2.2. taulak.

3.3. Lana bilatzen emandako denbora

Langabezian dauden 30 urtetik beherako hamar pertsonatik lau urtebete baino gehiago daramate lana bilatzen (% 41,6).

3.4. grafikoa


Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteek lan bila daramaten denbora (%)



16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen artean lan bila urtebete baino gehiago daramatenak asko izan arren, 35 eta 64 urte bitarteko langabeen artean izandakoak baino gutxiago dira (nagusien adin-talde horretan lana bilatzen urtebete baino gehiago daramaten langabeen ehunekoa % 66,2 da).

3.5. grafikoa

Langabeek lana bilatzen daramaten denbora, adin-taldeen arabera (%)



Lana bilatzen urtebete baino gehiago daramaten gizon langabe gazteen ehunekoa egoera berdinean dauden emakumeena baino handixeagoa da (% 42,8 eta % 39,6, hurrenez hurren).


3.4. Lana bilatzen den eremua eta lanagatik bizilekua aldatzeko prestasuna

Lana bilatzen ari diren gazte gehienek ez dute lurralde historikotik irten nahi (% 84,0); hori dela eta, % 44,1ek bere udalerrrian bilatzen du eta beste % 39,9k lurralde historiko osoan.

Beste muturrean, % 4,0k Euskaditik kanpo bilatzen du: % 2,1ek Espainia osotik eta % 1,9k atzerrian ere bai.

Kasu honetan ez dago alde handirik adinaren arabera: adin-talde guztietan langabe gehienek beren lurralde historikoan bilatzen dute lana eta ez hortik at.

3.6. grafikoa
Langabeek lana bilatzen duten eremu geografikoa, adin-taldearen arabera (%)




Ez dago alde handirik 30 urtetik beherako gizon eta emakume langabeen artean, lana bilatzeko eremu geografikoari dagokionean. Zerbait aipatzekotan, esan dezakegu langabezia dauden gizon gazteen % 3,1 atzerrian bilatzen ari dela eta langabezia dauden emakume gazteen artean ez da horrelakorik aurkitu.

Bestetik, nahiz eta 30 urtetik beherako langabe gehienek bakarrik bilatzen duten lana bere lurralde historikoan, % 36,0k aitortzen dute bizilekua aldatzea lekarkieten lanak hartuko lituzketela, eta horretan ia ez dago alderik gizon eta emakume langabe gazteen artean (% 35,6 eta % 36,6, hurrenez hurren).

Baina, adinean gora egin ahala, txikitu egiten da lanagatik beren bizilekua aldatuko luketen langabeen ehunekoa.

3.7.grafikoa

Bizilekua aldatzea lekarkeen lana hartzeko prestasuna langabeen artean, adin-taldean arabera (%)




3.5. Nahiago den lanaldi mota eta lanaldi partzialeko lanak hartzeko prestasuna

Langabezian dauden 30 urtetik beherako gazte gehienek lanaldi osoko zein lanaldi partzialeko lanak bilatzen dituzte (% 61,7). Eta mota bakarrekoak nahi dituztenen artean, gehiago dira lanaldi osoko lanak nahi dituztenak (% 26,1) lanaldi partzialekoak soilik nahi dituztenak baino (% 12,2); eta azken hauen artean badaude 30 ordu baino gutxiagokoak nahi dituztenak (% 9,9) eta 15 ordu baino gutxiagokoak nahi dituztenak, oso lanaldi murritzua esaten zaiena (% 2,3).

30 eta 34 urte bitarteko langabeen artean, lanaldi osoko lanak soilik nahi dituztenen ehunekoa gazteen artean jasotakoa baino handiagoa da (% 39,7); baina 35 eta 64 urteko langabeen eta gazte langabeen lehentasunak konparatuz gero, ez da alde handirik ikusten.

3.8.grafikoa
Langabeek nahiago duten lanaldi mota, adin-taldeen arabera (%)




Langabezian dauden 30 urtetik beherako gizon eta emakumeen lehentasunak aztertuz gero, ikus dezakegu lanaldi osoko lanak soilik nahi dituzten gizonen ehunekoak bikoizten duela lanaldi osoko lanak nahi dituzten emakumeen ehunekoa (% 32,6 eta % 15,7, hurrenez hurren). Aitzitik, emakumeen artean % 17,7k lanaldi partzialeko lanak soilik nahi dituzte eta gizonen kasuan ehuneko hori erdira murrizten da (% 8,8).

Izan ere, ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan, emakumeen gazteen artean gehixeago dira lanaldi partzialeko lanak soilik nahi dituztenak (% 17,7) lanaldi osokoak soilik nahi dituztenak baino (% 15,7)⁵.

⁵ Horrek erlazioa izan dezake emakumeek goi-mailako ikasketak proportzio handiagoan izatearekin, hau da, luzaro ikastearekin, 2. atalaren hasieran ikusi dugun bezala, eta, agian, lanaldi partzialeko lanak nahi izango dituzte lana eta ikasketak uztartu ahal izateko.


3.9.grafikoa
16 eta 29 urte bitarteko langabeek nahiago duten lanaldi mota, sexuaren arabera (%)



Edozelan ere, 30 ordu baino gutxiagoko lana onartuko luketen galdetuta, langabezia dauden gizon gazteen % 86,3k aitortzen dute onartuko luketela, bai eta emakume gazteen % 84,4k ere.

Oro har, langabezia dauden 30 urtetik beherako gazteen % 85,6k aitortzen dute lanaldi partzialeko lana onartuko luketela. Ehuneko hori handixeagoa da 30 eta 34 urte bitarteko langabeen artean (% 88,2) eta are handiagoa 35 eta 64 urte bitarteko langabeen artean (% 90,0). Horrek argi erakusten du, langabe askok lanaldi osoan lan egin nahi duten arren, lan-merkatuak ez duela eskaintzen uko egiteko adina lan aukera.

3.10.grafikoa
Lanaldi partzialeko lana onartuko luketen langabeak, adin-taldearen arabera (%)



3.6. Kategoria jaistea edo diru-sarrerak murriztea dakartzaten lanak onartzeko prestasuna


Bestetik, langabeei beste bi galdera luzatu zaizkie: ea onartuko luketen espero baino kategoria txikiagoko lanik edo, bere uztez, bere kualifikazioari dagozkion diru-sarrerak baino txikiagoak jasotzea dakarren lanik.

Langabezia dauden 30 urtetik beherakoen artean, ia hamarretik zortzik onartuko lukete espero baino kategoria txikiagoko lan bat (% 78,2) edo bere kualifikazioari teoriarik dagozkion diru-sarrerak baino txikiagoak jasotzea dakarren lan bat (% 78,8).

Edozelan ere, 34 urtetik gorako langabeekin konparatuz gero, ikusten dugu nagusiak gazteak baino prestuago leudekeela kategoria edo diru-sarrerak murriztea dakarten lanak onartzeko.

3.11. grafikoa

Kategoria edo diru-sarrerak jaistea dakartzen lanak onartuko lituzketen langabeak, adin-taldearen arabera (%)



16 eta 29 urte bitarteko langabeen artean, gizonek emakumeek baino neurri handiagoan diote espero baino kategoria txikiagoko lanak onartuko lituzketela (% 81,0 eta % 73,7, hurrenez hurren), bai eta duten kualifikazioari dagozkion diru-sarrerak baino txikiagoak jasotzea dakarten lanak ere (gizonek % 81,6 eta emakumeek % 74,2).


3.7. Lana aurkitzeko oztopoak

2019ko Lan Merkatuaren Erroldaren inkestan lana aurkitzeko oztopoez ere galdetu izan da, lan-eskatzaile bakoitzaren kualifikazio-maila, lanbide-esperientzia, familia- egoera, adina, eta abar, kontuan hartuta.

Horretarako, izan litezkeen hamar oztopoko zerrenda aurkeztu zaio inkestatu bakoitzari (ikasketa-maila, hizkuntza-maila, lanbide-esperientzia, soldata-asmoak, mugikortasun geografikoaren ezintasuna, familia-kargak egotea, jatorrizko herrialdea, sexua, adina eta muga fisikoak izatea) eta, norberaren egoeraren arabera, zeintzuk diren hiru garrantzitsuenak adieraz ditzala eskatu zaio.

16 eta 29 urte bitarteko langabeek batez ere lan-esperientzia falta aipatu dute (% 29,4) eta, ondoren, ikasketa-maila (% 19,0). Hizkuntza-maila izango litzateke hirugarren oztopoa, baina hori aipatu dutenen ehunekoa askoz txikiagoa da (% 7,7).

3.12.grafikoa
16 eta 29 urte bitarteko langabeek lana aurkitzeko dituzten oztopo nagusiak (%)



Bai gizon gazteek bai emakume gazteek nabarmentzen dute lana aurkitzeko oztoporik handiena lan-esperientzia falta dela; hala ere hori aipatzen dutenen ehunekoak handiagoak dira gizonen artean (% 35,2) emakumeen artean baino (% 20,1), baina gogoratu behar da, 3.1 atalean ikusi dugun bezala, langabezian dauden emakume gazteek gizon gazte langabeek baino lan-esperientzia handiagoa dutela.

Gainera, 16 eta 29 urte bitarteko emakume langabeen artean bigarren oztopo nagusia hizkuntza-maila da (hala diote emakumeen % 12,7k) eta gizonen artean, aldiz, ikasketa-maila (eta horrela adierazi dute adin horretako gizon langabeen % 25,9k⁶).

Bestalde, konparatzen badira 30 urtetik beherako langabeen eta 35 eta 64 urte bitartekoen iritziak, ikus daiteke, azken horien ustez, lana aurkitzeko duten oztoporik handiena adina dela (35 eta 64 urte bitarteko langabeen erdiek baino gehiagok aipatuta, % 52,9k, hain zuzen ere). 35 urtetik gorako langabeek gehien aipatutako bigarren oztopoa ikasketa-maila da (horien % 20,2k aipatu dute) eta hirugarrena, lan-esperientzia falta (% 13,1).

35 eta 64 urte bitarteko langabeek gazteek baino neurri handiagoan aipatu dituzte familia-kargak (%10,0 eta % 0,6, hurrenez hurren), bai eta mugikortasun geografikoaren ezintasuna ere (nagusien % 5,6k aipatu dute hori eta gazteen kasuan % 1,4k), segur aski, familia-kargak daudelako.

Langabezian dauden 30 eta 34 urte bitartekoek gehien aipatutako oztopoak lan-esperientzia falta (% 21,7), ikasketa-maila (% 17,3) eta hizkuntza-maila (% 10,3) izan dira, 30 urtetik beherako langabeen kasuan bezala; baina 30 eta 34 urte bitartekoen artean nolabaiteko garrantzia dute familia-kargak (% 8,0) eta mugikortasun geografikoaren ezintasunak (% 8,9).

3.2. taula

Langabeek azaldu dituzten lana aurkitzeko oztopo nagusiak, adin-taldeen arabera (%)

(oztopo bakoitza aipatu dutenen %)	16-29 urte	30-34 urte	35-64 urte
Lan-esperientzia	29,4	21,7	13,1
Ikasketa-maila	19,0	17,3	20,2
Hizkuntza-maila	7,7	10,3	8,4
Adina	3,4	6,2	52,9
Jatorrizko herrialdea	2,6	0,7	4,2
Muga fisikoak	2,2	1,3	4,8
Soldata-asmoak	1,5	0,0	2,3
Mugikortasun geografikoaren ezintasuna	1,4	8,9	5,6
Familia-kargak	0,6	8,0	10,0
Sexua	0,0	2,9	2,6

⁶ Eustatek dituen hezkuntzari buruzko adierazleen arabera, 2019an, goi-mailako titulazioa (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide-heziketako zikloak) duten 30 eta 34 urte bitarteko gizonen ehunekoa % 42,9 da; adin horretako emakumeen kasuan, ehunekoa handiagoa da: % 53,0, hain zuzen ere. Ikasketa-mailan ikusitako alde hori kontuan hartuta, ulergarria da gizon gazteek lana aurkitzeko oztopo hori emakumeek baino neurri handiagoan aipatzea.

4. EMAITZA NABARMENENAK

16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 38,4k lan egiten dute

% 83,0 soldatapekoak dira eta enpresa
pribatuetan lan egiten dute

Soldatapekoen % 98,2k Gizarte
Segurantzaren kotizatzen dute

Lan egiten duten gazteen % 4,6k soilik
bere kontura lan egiten dute

% 74,7k zerbitzuen sektorean lan
egiten dute

% 53,8k aldi baterako kontratua dute

% 71,7k bi urte baino gutxiago darama
enpresan

% 25,8k astean 30 ordu baino
gutxiago lan egiten dute

% 2,5 soilik daude zuzendaritza-
lanpostuetan

Hileko diru-sarrerak garbiak, batez
beste, 1.267 euro dira

% 8,1 beste lan bat bilatzen ari dira

16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,5 langabezian daude

% 77,9k aurreko lan-esperientzia dute

% 16,4k prestazio ekonomikoren bat
jasotzen dute

% 41,6k urtebete baino gehiago
darama lana bilatzen

% 76,3 harremanetan jarri da
enpleguko zerbitzu publikoekin

% 84,0k bere lurralde historikoaren
barnean bilatzen dute lana; % 1,9k
atzerrian

% 36,0k bizilekua aldatzea lekarkeen
lana onartuko lukete

% 85,6k lanaldi partzialeko lana
onartuko lukete

% 78,2k espero baino kategoriatxikiagoko
lana onartuko lukete

% 78,8k bere kualifikazioari dagozkion
diru-sarrerak jasotzea lekarkeen lana
onartuko lukete

Beren ustez, lana aurkitzeko oztoporik
nagusia lan-esperientzia falta da
(% 29,4)